

IZEN MORFOLOGIAREN ALDERDI BATZUK

Izen morfologiaren alderdi batzuk aitatu gura dodaz, danak zehatz-mehatz aztertu barik. Horrek lan berezi bat eskatzen dau eta beste bitarteko batzuk oraingo honetan nire esku ez dagozanak. Hemengo adibideak Tx. E. eta J. E. lekukoengandik jaso dodaz.

Azentoak hemengo euskaran balio morfologikoa emoten dau berba batzuetan:

“Basúe” zuhaitzak dituena da, eta “básue” edalontzia da hemengo euskaldunen artean.

Balio morfologikoa ere badauka azentuak hemen trisilaboetan. Azentoak gehi gainontzeko testuinguruak emoten dabe balio hori. Baina testuingurua ezabatuta be, azentoak eusten deutso bereizketa morfologikoari.

NOR eta **NORK** bereizten dauz.

“Gíxonak etorri die / gixónak erosi deu; mútíllek etorri die / mutíllek erosi deu; ónixek etorri die / oníxek erosi deu; órríxek etorri die / orríxek erosi deu; áríxek etorri die / aríxek erosi deu; árgalak etorri die / argálak erosi deu; lódídxek etorri die / lodídxek erosi deu”.

Itauna eginda, testuingurua ezabatzen da, baina berbeak azentoa bardin gordetzen dau: “Nortzuk etorri die? Gíxonak. Nork erosi deu? Gixónak”. Beste adibideetan bardin gertatzen da.

“Oníxek erosi deu / ónixek etorri dies; orríxek ekarri deu / órríxek etorri dies
aréxek ikusi deu / árexek etorri dies;

NORI singularra eta plurala bereizteko

Mutílleri lagune etorri dxako / mútilleri lágunek etorri dxakies

Gixónari / gíxonari ; oníxeri / ónixeri; orríxeri / órríxeri; aríxeri / árixeri; árgalari / argálari; lódídxeri / lodídxeri

NOREN singularra eta plurala bereizteko

Mutíllen etxia da / mútillen etxiak die; oníxen / ónixen; orríxen / órríxen; aríxen / árixen argálen / árgalen; lódídxen / lodídxen

POSPOSIZINOAK:

“Eusokoaren aldetik esteu eser be ekarri”.

“Orren gixonan aldien gu ondo gaus”.

Orrek badeko gure mutillen antza

Eusokoen artien ipiñi eren ure

Fabrikeko usaban bittartes asi san bierrien

Esnian bille joen da andrie

Kontu orren ganien seoser esan deu

Kotxien atzien / ganien/ eurrien itxi deu giltze

Atien alboan/ ondoan / aldamenien itxi deu atxurre

Eusokoen kontra sabaldu dere bidia

Bere loben konture bixi de oiñ

Bolaridxen lekuen / ordes / partes gure semie juen san

Etxien atzien txakurre dau

NOGAZ / NOREKIN

Lagúnas etorri de lágunekas etorri de

Azentoa + atzizki desbardina singularra eta plurala bereizteko

Onégas juen da	ónekas juen da
Orrégas juen da	órrekas juen da
Arégas juen da	árekas juen da

-kin atzizkia be erabilten dabe hemengo hiztunek: “J. Txato esat”otziena ibillten san sariakiñ sarbuek arrapetan edo”. (E. A.)

ZERTAZ

Geubien billurres ibilltten sien beti
Etxagune dirus beteta egoan
Burus dakis lenauko ipuiñek

ZERGATIK

Hemen bere azentua eta atzizkia singularra eta plurala bereizteko

Gixonaittik etorri de	gíxonakaittik etorri de
Oníxegaittik	ónixekaittik
Orréxegaittik	órrexekaittik
réxegaittik	árixekaittik

NORENTZAT NORENTZAKO

Gixonentzat	gíxonentzat
Mutíllentzat	mútilentzat
Onéntzat	ónentzat
Orréntzat	órrentzat
Árentzat	árentzat

Gure eusoko gixonantzako	gure eusoko gíxonentzako
“ Mutilentzako	“ mútilentzako
Onéntzako ekarri dere	ónentzako ekarri dere
Orréntzako	órrentzako “
Árentzako	árentzako “

ZERTZAT (Prolatiboa)

Sure anaitzat artu dere
Sure arrebatzat “

NONGO / NOZKO

Etxeko atie

goixeko trena

Soloko patatie

geubeko errelebue

amengo
orko
ango

NON

Etxien basoan / basuen landan selaidxen mendixen lekuen

NORENGANDIK

ure mutíllandik dxakin dou ori
andríandik

mútilenkandik
ándrakandik

Onégandik
Orrégandik
Arégandik

ónekandik
órrekandik
árekandik

NORENGANA

Andríana dxoan da preguntes
Gixónana “
Onégana
Orrégana
Arégana

ándrakana dxoan da preguntes
gíxonakana “
ónekana
órrekana
árekana

NORENGANANTZA

Gixónanantza urreratu de
Mutíllenantza juen/ joan da
Níana, súana, ágana,
Onéngana urreratu de
Orréngana joan / juen da
Aréana juen / joan da

gíxonakanantza urreratu de
mútillekanantza juen / joan da
gúana, súekana, éurekana
ónekana urreratu de
órrekana juen / joan da
árekana juen / joan da

NORENGAINO

Mutillanaño lusetu deu eskue
Neskíanaño allege de bomberue
Umianaño lusetu deu eskue
Aditzondoak: náíñor, náíñok, náíñon, náíñondik naiñóra,
Nósnai, nónai,

mútillekanaño bota deu sokia
nénkanaño bota deu sokia
úmiakanaño lusetu deu eskue

Izenordeak : nórñai.